

Euroituna berresteko lege proposamen arriskutsua

HIZKUNTZA GUTXITUEN Europako Itunari baietz esateko balioko duen lege proposamenak aurrera egin du Frantziako Asanblea Nazionalen. Alderdi Sozialistak egin du proposamena eta 361 aldeko bozka eta 149 kontrako bozka jaso ditu. Hizkuntza gutxiuak babestea helburu duen Euroituna Frantziak onar dezan konstituzioa aldatu behar da eta lege proposamenak horretarako bidea ireki du.

Orain, legeak aurrera egiteko bi bide daude. Ohiko prozedurari jarraiki senatuan bozkatuko litzateke eta gehiengoak onartuko balu erreferenduma egingo litzateke Euroitunaz bozkatzeko. Beste bidea erreferenduma saihestea da eta horretarako gobernua lege proposamena bere egingo luke. Alegia, lege xede bat aurkeztuko luke kongresuan eta han bozkatuko litzateke Eurokarta.

Euskalgintza ez dago pozik Alderdi Sozialistak egin duen planteamenduarekin. Sozialisten aburuz, Euroituna berrestea euskararentzat aitzinamendua litzateke, nahiz eta erabateko lorpena ez izan. Euskal Konfederazioaren ustez berriz, sozialisten proposamena biziki arriskutsua da. Horren argigarri da diputatuei eta senatariei lege proposamenaren aurka bozka emateko eskatu izana. Konfederazioak dioenez, lege proposamenaren testua oso murriztailea da. Testuak bere horretan egingo balu aurrera zerbitzu publikoetako pertsonen eta erabiltzaileen, eta zerbitzu publiko bat eskaintzen duten eragile pribatuei eta beraien erabiltzaileei frantseza inposatuko litzaike. Hau da, funtzio publikoa duten egitura guztietatik at geratuko litzateke euskara.

Bahea

Iñaki Eizmendik kazeta.info-n esanak:

“Sestaoko ama batek esan zidan behin, ‘es que a mi hija no le gusta el euskara’. Testuinguru erdaldunetan asko entzuten da hori. Alabaren lekuan jarri eta azken hila-beteetan izan dituen bizi-penak ea zein hizkuntzatan izan diren pentsatzeko eskatu nion. Bidaia bat, txangoa, lagun berri bat, kirola, ekitaldi berezi bat, telebistako programa bat... Bizipen batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz badira, bi hizkuntzekin harreman handia eta positiboa duela esan dezakegu. Denak euskaraz badira ez daukagu arduratu beharrik, gaztelera-azkoak lehenago edo geroago agertuko direlako. Sestaoko neskaren kasuan bizipen guztiak ziren gaztelera-az, haurrak euskara eskolarekin soilik lotzen zuen, ez zuen bestelako bizipenik. Horrez gain ikaste prozesua besteei baino gehiago kostatzen ari bazaio, erraztasunik ez badu eta gainera askotan zuzentzen badute, agian ez du euskara sentsazio onekin lotzen. Eta, orduan, ez naiz harritzen euskara ez gustatzea. Baina euskarak ez dauka errua, kontua da hizkuntza horrekin ez duela harreman egoki bat”.



ALDIZKARIA.IKASTOLA.NET

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Eroski, Fagor, Mondragon Taldea eta bankuak

MONDRAGON TALDEA arazo oso larri baten aurrean dago, eta ahalik eta hoberen konpondu beharko du, ez badu hondamendia sortu nahi: milaka enplegu galdu eta bertako produkzio sarearen nukleo gogorra deuseztatzea. Arazoa jada ez dira soilik Fagor Etxetresnek ordainketak etetea eta Eroskik duen 2.500 milioi euroko finantza zor erraldoia. Arazoa larritu egin da, Eroski eta Fagorren menpeko ekarpenak erosi zituzten 40.000 aurreztaile txiki daudelako; 845 milioi euro, zehatz esateko. Eta egoera are gehiago nahasi da, Bilboko auzitegi baten sententziak aurreztaile horiei dirua itzultzeko atea ireki duenean.

Eroskik eta finantza erakundeek aurreztaile horiei zorra ordaintzeko egin dien behin behineko proposamenak –zorraren %30 kitatzea, %15 diru-likidoan kobratzea eta gainerako %55 12 urteko bonotan inbertitzea– ez ditu ekarpenen jabeak konbentzitu. Proposamen hori hobetu ezean, aurreztaileek bide judizialari ekingo diote, eta badakigu zein izango den epailearen hemendik aurrerako irizpidea. Laboral

Kutxak aurre egin diezaiokie bere ardura zatiari? Mondragon Taldea egoera horri erantzuteko gai izango da? Eurak bakarrik, badirudi ezetz.

Aurreztaileen eskaerak asetzeko eta Mondragon salbatzeko, beste irtenbide batzuk pentsatu behar dira, eta agian banku eta kutxek ere Eroskik haiekin duen zorraren zati bat kitatu beharko dute. Urte guztian, aberastasuna egon denean, erakunde horiek etekin ugari lortu dituzte Mondragon Taldearen operazioen bidez. Orain, urritasuna etorri denean, egoera larri hau konpontzen lagundu behar lukete, zorraren zati bat kitatzea onartuz. Hala, aurreztaileen eskaerei aurre egiteko gai izango litzateke Eroski, eta Mondragonek lanpostuak mantenduko lituzke, Euskal Herriaren zerbitzurako aberastasuna sortzen segituz. Mondragonek autokritika egin behar du, baina ezin du porrot egin. Euskal Herriarentzat hil ala bizikoa da.

Juan Mari Arregi

